


IPUINA

Ipuina narrazio mota bat da eta bere helburu nagusia, irakurlea edo entzulea entretenitzea da. Honekin batera, beste intentzio batzuk egon daitezke.



SARRERA: Hasierako egoera.

Sarreran **pertsonai importanteak** edo **protagonistak** agertu behar dira. Beste aldetik, ekintza **non**, eta **noiz** gertatzen den aipatu behar da.

Lekua (non) eta denbora (noiz) ez dira zehatzak eta egiazkoak izan beha, derrigorrez.

Denbora, adibidez, horrela adierazi daiteke: patata denboran... behin... orain dela asko... animaliek hitz egiten zekiten garaian...

Lekuarekin berdin gerta daiteke: baso ilun batean... X inperioan, planeta urrun batean...

GERTAERA: Arazo bat gertatzen da.

Hasierako egoera erabat aldatzen du arazo honek.

Hemen, **ekintza** desberdinak suertatzen dira arazo hori konpondu ahal izateko. Ipuinaren korapiloa da eta atal luzeena izaten da gehienetan.

BUKAERA: Arazoa konpontzen da.

Egoera berri bat sortzen da.

KONTUAN HARTU:

Ipuin barruan **DESKRIBAPENAK** ETA **ELKARRIZKETAK** idatzi behar dira.

Ipuinetan dena ez da narrazio hutsa. Oso komenigarria da, tartean, leku eta pertsonai deskribapenak egitea. Gauza bera gertatzen da elkarrizketekin. Pertsonai desberdinen arteko elkarrizketak oso komenigarriak dira.

IPUINAK IDAZTEKO LAGUNTZA

SARRERA	□ Ipuinaren hasiera polita erabili □ Zeintzuk dira pertsonaiak, eta nolakoak diren (beren deskribapena polita eta aberatsa literarioki, izenlagunak erabili, konparazioak) □ Noiz gertatzen da historia □ Non gertatzen da historia (beharrezkoa bada tokiaren deskribapena)	□ Bazen behin / baziren behin / Behin bazen / Baziren behin □ Behin baten / Behin batez □ Aitzin aitzinean / Aspaldi aspaldian □ Duela urte asko / Orain dela urte asko □ Munduan beste asko bezala baziren... □ Diotenez □ Gauza guztiek hizketan zekiten garaian gertatu omen zen... □ Udako (neguko,...) goiz (arratsalde, gau,...) batean honako hau gertatu zen... □ Itsasertzeko (Poloniako, ...) herri batean gertatu zen honako istorio hau: □ Aralarren (Txinan,...) ba omen zen
GERTAERAK	ARAZO bat gertatzen da ipuina martxan jartzen duena □ Arazoa konpontzeko EKINTZAK, GERTAERAK suertatzen dira □ GERTAEREN ARTEKO LOTURA egiteko DENBORAZKO LOKAILUAKETA, PERPAUSAK ERABILI, ERREPIKATU GABE □ ELKARRIZKETAK idazteko modua kontutan hartu! □ ESAN aditza ordezkatzeko aditz zerrenda erabili.	□ Egun batean... □ Gero / Ondoren / Beranduago □ Handik gutxira/ handik..... egunera □ Ordu bete (urte bat,...) barru / ordu bete pasata □ Bat-batean / Halako batean □ Une berean □ Oraingo honetan □ Bezain laster □ ... Ordurako □ ... Bitartean □ Segituan □ Aurretik /baino lehen □-nean □ Berehala □ orduko □ Hurrengo egunean
BUKAERA	□ ONDORIOA dator,	□ Azkenean / Handik aurrera/ Geroztik /

	arazoa konpontzen da eta ipuinari bukaera eman. ☐ BUKAERAKO formula politaren bat erabili	Harrezkero /Ordutik aurrera.... ☐ "Hori hala bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila San Frantzisko plazan" ☐ "Egia bada, sakelan sar, gezurra bada, atera ez dadila" ☐ "Haiek ondo bizi baziren, gu hobeto bizi gaitezen" ☐ "Aditzeko belarririk duenak, aditu eta ikas dezala"
KOKNTUTAN HARTZEKOAK	☐ ORTOGRAFIA ☐ PUNTUAZIOA ☐ HIZKUNTZA LITERARIOA	Metaforak, konparaketak ere asko aberasten dute ipuina, oroitu iaz landu genuena eta ahal duzun hizkuntza literarioena erabili

KONTUTAN HARTZEKOAK

Badakizu elkarrizketak maiz agertzen direla ipuinetan, eta joera dugula ESAN aditza behar dena baina gehiago erabiltzeko. Beraz, kontutan hartu aspektu hau eta saia zaitez aditz horren ordez beste batzuk erabiltzen:

	SINONIMOAK	ESANAHIA, NOIZ ERABILIKO DUGU?
ESAN	Erran aipatu adierazi	Zerbait esan nahi dugunean era normal batez
GALDETU	Galde egin itaundu kontsultatu iritzia eskatu aztertu	Galdera bat egiterakoan
ERANTZUN	Ihardetsi iharduki	Erantzuna ematerakoan galdera bati
DEITU	Dei egin hots egin deitatu	Ondoan ez dagoenari esateko

	izendatu	
OIHUKATU	Aldarrikatu oihu egin garraxi egin	Pertsonaia haserre badago Oso urrun badago
GAINERATU	Erantsi osatu gehitu	Aurreko pertsonaiak esandakoa osatu
BAIEZTATU	Ziurtatu Baietz esan Egiaztatu Onartu	Pertsonai batek esaten duenari baietza eman
EZEZTATU	Anolatu Ezatz esan Deuseztatu	Ezetz esaterakoan Ados ez dagoenean pertsonaia
JARRAITU	Segitu Jarraitu	Pertsonai baten kontaketaekin jarraitzerakoan
XUXURLATU	Murmurikatu Mar mar egin	Baxu hitz egiterakoan
MOZTU	Ebaki	Txanda kendu
HASI	Ekin hasiera eman Abiatu	Hizketan hasi
ERREPIKATU	Berresan Berriz esan	Aurrekoak esan duena berriz esan
AZALDU	Adierazi Argitu Kontatu Aurkeztu Espelikatu	Informazio bat ematerakoan

IPUINA EGIN ONDOREN ERREBISATZEKO LAGUNTZA

	BAI	EZ
Ipuinaren hasiera polita erabili dut?		
- Idatzi dut zeintzuk diren pertsonaiak, eta nolakoak diren (beren deskribapena polita eta aberatsa literarioki, izenlagunak erabilia, konparazioak, metaforak, pertsonifikazioak, ...)		
- Noiz gertatzen da historia idatzi dut?		
- Non gertatzen den historia (beharrezkoa bada tokiaren deskribapena) idatzi dut?		
ARAZO bat gertatzen da, ipuina martxan jarzen duena?		
Arazoa konpontzeko EKINTZAK , GERTAERAK idatzi ditut?		
GERTAEREN ARTEKO LOTURA egiteko denborazko lokailuak eta perpausak erabili ditut, errepikatu gabe (fitxan agertzen diren bezalakoak)?		
ELKARRIZKETAK idazteko modua kontutan hartu dut, hau da, gidoiak eta galdera eta harridura ikurrak erabili ditut?		
Elkarrizketetan saiatu naiz aditz desberdinak idazten ESAN aditzaren ordeztu?		
Ekintzak eta gero, ONDORIOA dator, arazoa konpontzen da eta ipuinari BUKAERA ematen diona?		
BUKAERA KO formula politaren bat erabili dut?		
ORTOGRAFIA errebisatu eta zuzendu dut?		
PUNTUAZIOA egokia al da?		
Erabili dudak hizkuntza aberatsa eta literarioa izan da?		
Pozik nago egin dudak lanarekin		
Irakurtzen eta entzuten dutenei gustatuko al zaie ipuina?		

Behin hau egin ondoren, aldatu zure ipuinean beharrezkoa iruditzen zaizuna ahal den politen eta interesgarrien geldi dadin!!